



NANa BERRITZEA

NANaren unitate mugikorra Aurizko udaletxera etorriko da **azaroaren 07an**, NANa berritzeak egitera: Lehenengo agiriak, berritze arruntak eta helbide aldaketak. **EZ** dira NAN agiri urdinak berrituko ezta filiazio daturik aldatuko; beharrezkoa da gutxienez 36 pertsona interesdun egotea. Interesdun guztiek izena eman behar dute telefono hauetara deituz 948760032-948768011 (Anabel) 2023ko urriaren 20ko 14:00ak baino lehen.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

AGIRIA BERRITZEKO:

. Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo txuria eta aurpegi garbia)

. NANa

NANa GALDU EDO EBASTEAGATIKO BERRITZEA:

. 2 Argazki berri (koloretakoa, fondo txuria eta aurpegi garbia) Galdutako edo ebatsitako NANa elektronikoa denean, argazkia beharrezkoa izan daiteke (kasuen arabera)

. Salaketa egin denean agiria ekarri behar da.

Agiria berritu behar duenak 14 urte baino gutxiago baldin badu, aita, ama, tutorea edo ahalordedunarekin etorri beharko du, pertsona horrek ere NANa aldean daramala.

NANa LEHENENGO ALDIZ EGIN BEHAR DENEAN:

. Hitzek hitzeko Jaiotze Ziurtagiria, Erregistro Zibilak egina (gehienez ere 6 hilabete lehenagokoa) eta “NANa egiteko bakarrik luzatua”.

. Erroldatze ziurtagiria (kontuan hartu 3 hilabeteko balioa besterik ez duela izaten)

. Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo txuria eta aurpegi garbia)

. Agiria berritu behar duenak 14 urte baino gutxiago baldin badu, aita, ama, tutorea edo ahalordedunarekin etorri beharko du, pertsona horrek ere NANa aldean daramala.